- Las cuotas, donativos y otras ayudas similares, procedentes de patrocinadores, entidades afiliadas u otros deudores, con vencimiento a corto plazo, originan un derecho de cobro que se contabiliza por su valor nominal. Si el vencimiento supera el citado plazo, se reconocerán por su valor actual. La diferencia entre el valor actual y el nominal del crédito se registra como un ingreso financiero en la cuenta de resultados de acuerdo con el criterio del coste amortizado.
- Los préstamos concedidos en el ejercicio de la actividad propia a tipo de interés cero o por debajo del interés de mercado se contabilizan por su valor razonable. La diferencia entre el valor razonable y el importe entregado se reconoce, en el momento inicial, como un gasto en la cuenta de resultados de acuerdo con su naturaleza. Después de su reconocimiento inicial, la reversión del descuento practicado se contabiliza como un ingreso financiero en la cuenta de resultados.

- Al menos al cierre del ejercicio, se efectúan las correcciones valorativas necesarias siempre que exista evidencia objetiva de que se ha producido un deterioro de valor en estos activos, que se contabilizan aplicando el criterio del coste amortizado.

b) Débitos por la actividad propia: son las obligaciones que se originan por la concesión de ayudas y otras asignaciones a las entidades y personas beneficiarias de la entidad en cumplimiento de los fines propios.

- Erakundeak onuradunei emandako epemuga laburreko laguntzak edo bestelako diru-sariak pasibotzat jasotzen dira, balio nominala kontuan hartuta. Epemuga gaituz gero, oraingo balioa hartzen da kontuan. Zorraren oraingo balioaren eta balio nominalaren arteko diferentzia finantza-gastu gisa kontabilizatzen da emaitza-kontuan, kostu amortizatuaren irizpideekin bat etorritik.
- Emandako laguntza urte bat baino gehiagorako bada, irimo eta modu ezeztazinean eta baldintzarik gabe hitzartutako zenbatekoaren oraingo balioaren arabera erregistratzen da pasiboa. Irizpide hori bera aplikatzen zaie laguntza luzatzeko aldiak aldiko ebaluaziorik eskatzen ez dutenei ere, hau da, izapide formal eta administratiboak betetzea bakarrik eskatzen dutenei.

4.3 Finantza inbertsioak

Enpresa batean finantza-aktiboak sortzen dituzten eta aldi berean beste enpresa batean pasibo finantzarioak edota ondareak sortzen dituzten kontratuak erregistratu ditu erakundeak finantza inbertsioen atalean. Hortaz, honako hauek jo dira finantza inbertsioak:

- a) Finantza-aktiboak
 - Dirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.
 - Merkataritza-operazioekin lotutako kredituak.
 - Bestelako finantza-aktiboak, esaterako, kreditu, finantza edo osatutako-gordailu erakundeetan dauden gordailuak.
- b) Pasibo finantzarioak
 - Merkatal-operazioekin lotutako zordunketak: hornitzaileak eta hainbat hartzekodun.
 - Bestelako pasibo finantzarioak: hirugarrenetik zorrak, esaterako, jasotako fidantzak eta gordailuak.

4.3.1 Epe luze eta laburreko inbertsio finantzarioak

- **Aktibo finantzarioak kostu amortizatuak.** Aktibo finantzario bat kategorian honetan sartzen da, baita merkatu antolatutako batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta erakundeak inbertsioa kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin mantentzen badu, eta aktibo finantzarioaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak sortzen badituzte, printzipalaren kobrantzak eta egiteke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesen kobrantzak baino ez direnak. Printzipalaren kobrantzak eta egiteke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesen kobrantzak baino ez diren kontratuzko diru-fluxuak, mailegu arrunt baten izaera duen akordio baten berezkoak dira, eragiketa zeroko interes-tasan edo merkatukoa baino txikiagoa den interes-tasan adostearen kalterik gabe. Oro har, kategorian honetan sartzen dira merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak (kobrantza geroratua duten erakundearen trafikotik eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren aktibo finantzarioak), eta merkataritza-

- Las ayudas y otras asignaciones concedidas por la entidad a sus beneficiarios, con vencimiento a corto plazo, originan el reconocimiento de un pasivo por su valor nominal. Si el vencimiento supera el citado plazo, se reconoce por su valor actual. La diferencia entre el valor actual y el nominal del débito se contabiliza como un gasto financiero en la cuenta de resultados de acuerdo con el criterio del coste amortizado.
- Si la concesión de la ayuda es plurianual, el pasivo se registra por el valor actual del importe comprometido en firme de forma irrevocable e incondicional. Se aplica este mismo criterio en aquellos casos en los que la prolongación de la ayuda no está sometida a evaluaciones periódicas, sino al mero cumplimiento de trámites formales o administrativos.

4.3 Instrumentos financieros

La entidad tiene registrados en el capítulo de instrumentos financieros, aquellos contratos que dan lugar a un activo financiero en una empresa y, simultáneamente, a un pasivo financiero o a un instrumento de patrimonio en otra empresa. Se consideran, por tanto instrumentos financieros, los siguientes:

- a) Activos financieros:
 - Efectivo y otros activos líquidos equivalentes.
 - Créditos por operaciones comerciales.
 - Otros activos financieros: tales como depósitos en entidades de crédito, finanzas y depósitos constituidos.
- b) Pasivos financieros:
 - Débitos por operaciones comerciales: proveedores y acreedores varios.
 - Otros pasivos financieros: deudas con terceros, tales como fianzas y depósitos recibidos.

4.3.1. Inversiones financieras a largo y corto plazo

- **Activos Financieros a coste Amortizado.** Un activo financiero se incluye en esta categoría, incluso cuando esté admitido a negociación en un mercado organizado, si la empresa mantiene la inversión con el objetivo de percibir los flujos de efectivo derivados de la ejecución del contrato, y las condiciones contractuales del activo financiero dan lugar, en fechas especificadas, a flujos de efectivo que son únicamente cobros de principal e intereses sobre el importe del principal pendiente. Los flujos de efectivo contractuales que son únicamente cobros de principal e interés sobre el importe del principal pendiente son inherentes a un acuerdo que tiene la naturaleza de préstamo ordinario o común, sin perjuicio de que la operación se acuerde a un tipo de interés cero o por debajo de mercado. Con carácter general, se incluyen en esta categoría los créditos por operaciones comerciales (aquellos activos financieros que se originan en la venta de bienes y la prestación de servicios por operaciones de tráfico de la empresa con cobro aplazado), y los créditos por operaciones no comerciales aquellos activos financie-

tzakoak ez diren eragiketen kredituak (erakundeak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozen eta, ondare-tresnak edo deribatuak izan gabe, merkataritza-jatorririk ez duten aktibo finantzarioak, horien kobrantzak zenbateko jakinekoak direnean edo zehaztu ahal direnean). Hau da, kategoría horren barruan egongo lirateke maileguak eta kobratzeko kontuak, baita zorra adierazten duten baloreak ere, mugaeguna finkatuta dutenak, kobrantzak zenbateko jakinekoak direnean edo zehaztu ahal direnean, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta mugaeguna arte mantentzeko asmoa eta gaitasuna duenean.

- **Hasierako balioespina:** hasieran arrazoizko balioaren arabera balioetsiko dira, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuak gehituta. Hala ere, balio nominalen balioetsi ahal izango dira urtebete edo epemuga txikiagoa duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketen kredituak, baita langileei emandako kredituak, kobratzeko dibidenduak eta ondare-tresnei buruz galdutako despoltsapenak ere, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, beti ere diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

- **Ondorengo balioespina:** kostu amortizatuaren arabera balioetsiko dira, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete edo epemuga txikiagoa duten kredituak, aurreko idatz-zatian zehaztutakoaren arabera, hasieran balio nominalen balioetsi badira, zenbateko horretan balioetsita jarraituko dute, narriadurarik ez badago.

Aktibo finantzario baten kontratuzko diru-fluxuak jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, balio-narriaduragatik galera kontabilizatu behar den aztertuko du erakundeak.

- **Narriadura:** erakundeak, dagozkion narriadurak erregistratzen ditu, kobratzeko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta, erregistratuta duten liburu-balioaren arteko diferentziagatik.

Ekitaldi itxieran behintzat, egin beharreko balio-zuzenketak egingo dira, objektiboki ikusten denean kategoría honetan sartutako aktibo finantzario baten balioa, edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten eta batera balioetsita dauden aktibo finantzarioen multzo batena, narriatu egin dela hasierako kontabilizazioa egin ondorengo gertaera batengatik edo batzuegatik eta, etorkizuneko diru-fluxu estimatuak atzeratu edo murriztu egin direla, beharbada zordunaren kaudimengabeziagatik.

ros que, no siendo instrumentos de patrimonio ni derivados, no tienen origen comercial y cuyos cobros son de cuantía determinada o determinable, que proceden de operaciones de préstamo o crédito concedidos por la empresa). Es decir, dentro de esta categoría estarían los préstamos y cuentas a cobrar, así como aquellos valores representativos de deuda, con una fecha de vencimiento fijada, cobros de cuantía determinada o determinable, que se negocien en un mercado activo y que la Sociedad tiene intención y capacidad de conservar hasta su vencimiento.

- **Valoración inicial:** Inicialmente se valoran por su valor razonable, más los costes de transacción que les sean directamente atribuibles. No obstante, los créditos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tienen un tipo de interés contractual explícito, así como los créditos al personal, los dividendos a cobrar y los desembolsos exigidos sobre instrumentos de patrimonio, cuyo importe se espera recibir en el corto plazo, se podrán valorar por su valor nominal cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no sea significativo.

- **Valoración posterior:** se hace a coste amortizado y los intereses devengados se contabilizan en la cuenta de pérdidas y ganancias, aplicando el método del tipo de interés efectivo.

No obstante, los créditos con vencimiento no superior a un año que, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado anterior, se valoren inicialmente por su valor nominal, continuarán valorándose por dicho importe, salvo que se hubieran deteriorado.

Cuando los flujos de efectivo contractuales de un activo financiero se modifican debido a las dificultades financieras del emisor, la empresa analizará si procede contabilizar una pérdida por deterioro de valor.

- **Deterioro:** La Sociedad registra los correspondientes deterioros por la diferencia existente entre el importe a recuperar de las cuentas por cobrar y el valor en libros por el que se encuentran registradas.

Al menos al cierre del ejercicio, se efectúan las correcciones valorativas necesarias siempre que existe evidencia objetiva de que el valor de un activo financiero incluido en esta categoría, o de un grupo de activos financieros con similares características de riesgo valorados colectivamente, se ha deteriorado como resultado de uno o más eventos que hayan ocurrido después de su reconocimiento inicial y que ocasionen una reducción o retraso en los flujos de efectivo estimados futuros, que pueden venir motivados por la insolvencia del deudor.

Aktibo finantzario horien balio-narriaduraren galera honela kalkulatu da: liburu-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia. Kalkulua egiteko, hala badagokio, berme errealak eta pertsonalak gauzatzetik estimatzen diren diru-fluxuak ere sartuko dira, hasierako aintzatsuenaren unean kalkulaturako interes-tasa efektibora deskontatuta.

Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak eta, geroko gertaerengatik galera hori murriztu delako egin beharreko atzera-itzultzeak, gastu edo sarrera gisa kontabilizatuko dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren atzera-itzultzearen muga izango da, atzera itzultzen den datan aktiboak izango lukeen liburu-balioa, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz.

** Aktibo finantzarioetatik jasotako interesak*

Aktibo finantzarioak eskuratu ondoren sortzen diren interesak dira, diru-sarrera moduan kontabilizatzen dira emaitzen kontuan. Interesak interes-tasa efektiboaren metodoaren bitartez kontabilizatzen dira, Erakundearentzako eskubideak interes horiek jasotzean sortzen direnean.

** Aktibo finantzarioen baja*

Erakundeak aktibo finantzarioei baja ematen die iraungitzen direnean edo kasuan kasuko aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko eskubideak laga direnean eta haien jabetzarekin lotutako arriskuak eta onurak nabarmenki transferitu direnean. Kobratzeko diren kontuen kasuan, oro har hori gertatzen dela ulertzen da kaudimengabezia eta berandutza arriskuak transmititu badira.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean, hartutako kontraprestazio garbiaren (transakzio-kostuak kenduta) eta aktiboaren kontabilitate-balioaren (zuzenean ondare garbian kontabilizatutako zenbateko metatuak gehituta) arteko diferentziak erabakiko du aktiboari baja ematean izandako irabazia edo galera, eta ekitaldi horretako emaitzaren parte izango da.

4.3.2. Esku-dirua eta beste baliabide likido baliokide batzuk

Erantsitako egoera-balantze laburtutako epigrafe honetan erregistratu da kutxa eta bankuetan dagoen dirua, ageriko gordailuak eta epe laburrerako eta likidezia handiko beste inbertsio batzuk, berehala dirutan bihurtzeko direnak eta duten balioan aldaketarik izateko arriskurik ez dutenak.

4.3.3. Pasibo finantzarioak

Pasibo finantzarioak, balioespenari dagokionez, ondorengo kategoriaren batean barneratzen dira:

La pérdida por deterioro del valor de estos activos financieros es la diferencia entre su valor en libros y el valor actual de los flujos de efectivo futuros, incluidos, en su caso, los procedentes de la ejecución de las garantías reales y personales, que se estima van a generar, descontados al tipo de interés efectivo calculado en el momento de su reconocimiento inicial.

Las correcciones de valor por deterioro, así como su reversión cuando el importe de dicha pérdida disminuyese por causas relacionadas con un evento posterior, se reconocen como un gasto o un ingreso, respectivamente, en la cuenta de pérdidas y ganancias. La reversión del deterioro tiene como límite el valor en libros del activo que estaría reconocido en la fecha de reversión si no se hubiese registrado el deterioro del valor.

** Intereses recibidos de activos financieros*

Los intereses de activos financieros devengados con posterioridad al momento de la adquisición se reconocen como ingresos en la cuenta de resultados. Los intereses se reconocen por el método del tipo de interés efectivo cuando han surgido los derechos para la Asociación a su percepción.

** Baja de activos financieros*

La Asociación da de baja los activos financieros cuando expiran o se han cedido los derechos sobre los flujos de efectivo del correspondiente activo financiero y se han transferido sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad. En el caso concreto de cuentas a cobrar se entiende que este hecho se produce en general si se han transmitido los riesgos de insolvencia y mora.

Cuando el activo financiero se da de baja la diferencia entre la contraprestación recibida neta de los costes de transacción atribuibles y el valor en libros del activo, más cualquier importe acumulado que se haya reconocido directamente en el patrimonio neto, determina la ganancia o pérdida surgida al dar de baja dicho activo, que forma parte del resultado del ejercicio en que ésta se produce.

4.3.2. Efectivo y otros medios líquidos equivalentes

Bajo este epígrafe del balance abreviado adjunto se registra el efectivo en caja y bancos, depósitos a la vista y otras inversiones a corto plazo de alta liquidez que son rápidamente realizables en caja y que no tienen riesgo de cambios en su valor.

4.3.3. Pasivos financieros

Los pasivos financieros, a efectos de su valoración, se incluyen en alguna de las siguientes categorías:

- **Pasibo finantzarioak kostu amortizatuan.** Kategoria honetan pasibo finantzario guztiak sartuko dira, arrazoizko balioan balioetsi behar direnak eta aldaketak galdu-irabazien kontura doazenean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketen zorrak eta merkataritzakoak ez diren eragiketen zorrak.

Mailegu arrunt baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategoria honetan sartuko dira, eragiketa zero ko interes-tasan edo merkaturakoa baino txikiagoa den interes-tasan adostearen kalterik gabe.

- **Hasierako balioespena:** Arrazoizko balioan balioetsiko dira, eta aurkako frogarik izan ezean, transakzioaren prezio bera izango da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuekin doitu. Hala ere, balio nominalen balioetsi ahal izango dira urtebete edo epemuga txikiagoa duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketen zorrak, baita partaidetzei buruz hirugarrenek galdatutako despoltsapenak ere, horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero bada, beti ere diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.
- **Ondorengo balioespena:** kostu amortizatuaren arabera balioetsiko dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatu dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebete edo epemuga txikiagoa duten zorrak, aurreko idatz-zatian zehaztutakoaren arabera, hasieran balio nominalen balioetsi badira, zenbateko horretan balioetsita jarraituko dute.

** Pasibo finantzarioen baja*

Erakundeak baja emango dio pasibo finantzario bati, edo horren zati bati, betebeharra iraungi denean, hau da, ordaindu, kitatu edo bukatu denean.

4.3.4. Arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa aktibo bat saltzeagatik jasotzen den prezioa da, edo balioespen-datan merkaturako parte-hartzaileen artean antolatutako transakzio baten bidez pasibo bat transferitzeko edo kitatzeko ordaintzen dena. Arrazoizko balioa zehazteko, ez da inolako kenketarik egingo inorenganatzegatik edo bestelako batzuk erabiltzeagatik egin daitezkeen transakzio-kosten kontzeptuan. Ez da inola ere arrazoizko baliotzat hartuko transakzioa behartua, presazkoa edo nahi gabeko likidazio-egoera baten ondorioa denean.

Oro har, arrazoizko balioan balioetsitako finantza-tresnen balioespena, merkaturako balio fidagarri bati erreferentzia eginez kalkulatzen du erakundeak, eta arrazoizko balio horren erreferentziarik onena merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, balioespen-ereduak eta -teknikak aplikatuz lortzen da arrazoizko balioa.

- **Pasivos Financieros a coste Amortizado.** Dentro de esta categoría se clasifican todos los pasivos financieros excepto cuando deben valorarse a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias. Con carácter general, se incluyen en esta categoría los débitos por operaciones comerciales y los débitos por operaciones no comerciales.

Los préstamos participativos que tengan las características de un préstamo ordinario o común también se incluirán en esta categoría sin perjuicio de que la operación se acuerde a un tipo de interés cero o por debajo de mercado.

- **Valoración inicial:** Inicialmente se valoran por su valor razonable, que, salvo evidencia en contrario, es el precio de la transacción, que equivale al valor razonable de la contraprestación recibida ajustado por los costes de transacción que le sean directamente atribuibles. No obstante, los débitos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tengan un tipo de interés contractual, así como los desembolsos exigidos por terceros sobre participaciones, cuyo importe se espera pagar en el corto plazo, se pueden valorar por su valor nominal, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no sea significativo.
- **Valoración posterior:** se hace a coste amortizado. Los intereses devengados se contabilizan en la cuenta de pérdidas y ganancias, aplicando el método del tipo de interés efectivo. No obstante, los débitos con vencimiento no superior a un año que, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado anterior, se valoren inicialmente por su valor nominal, continuarán valorándose por dicho importe.

** Baja de pasivos financieros*

La empresa dará de baja un pasivo financiero, o parte del mismo, cuando la obligación se haya extinguido; es decir, cuando haya sido satisfecha, cancelada o haya expirado.

4.3.4. Valor razonable

El valor razonable es el precio que se recibe por la venta de un activo o se paga para transferir o cancelar un pasivo mediante una transacción ordenada entre participantes en el mercado en la fecha de valoración. El valor razonable se determina sin practicar ninguna deducción por los costes de transacción en que pudiera incurrirse por causa de enajenación o disposición de otros medios. No tendrá en ningún caso el carácter de valor razonable el que sea resultado de una transacción forzada, urgente o como consecuencia de una situación de liquidación involuntaria.

Con carácter general, en la valoración de instrumentos financieros valorados a valor razonable, la Sociedad calcula éste por referencia a un valor fiable de mercado, constituyendo el precio cotizado en un mercado activo la mejor referencia de dicho valor razonable. Para aquellos instrumentos respecto de los cuales no exista un mercado activo, el valor razonable se obtiene, en su caso, mediante la aplicación de modelos y técnicas de valoración.

Merkataritza-eragiketen kredituen eta zorren liburu-balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela onartzen da.

4.4 Mozkinen gaineko zerga

Erakundeak ez du sozietateen gaineko zergarik ordaindu behar, bere xede-soziala edo helburu zehatza lortzeko gauzatutako ekintzetatik lortutako errentak direla eta.

2024. ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga abenduaren Seko 11/2013 Foru Arauarekin (Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) bat etorritik likidatu da.

4.5 Diru-sarrerak eta gastuak

- Alderdi komunak

Erakundeak emandako laguntzak, laguntza ematea onartzen den unean aintzatesten dira.

Erabiltzaileen edo afiliatuen kuotak, dagokien epealdian aintzatesten dira sarrera gisa.

Baliabideak erakartzeko sustapenetatik, babesleetatik eta lankidetzetatik datozen sarrerak, dira kanpainak eta ekintzak gertatzen direnean aintzatesten dira.

Erakundeak bere jardueraren ohiko garapenagatik sarrerak aintzatesten ditu bezeroekin konprometitutako ondasun edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, erakundeak sarrera balioetsiko du, ondasun edo zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoan.

- Aintzatestea

Kontratu batetik eratorritako sarrerak aintzatesten ditu erakundeak, bezeroari konprometitutako (hau da, bete beharreko betebeharrak) ondasun edo zerbitzuen kontrola transferitzean (edo transferitzen ari zaion heinean).

Ondasun edo zerbitzu baten (aktibo baten) kontrola ondare-elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeak eta gainerako onura guztiak lortzeko gaitasunari dagokio. Kontrolak, beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabakitzea eta etekinak lortzea eragozteko gaitasuna adierazten du.

Identifikatzen den betebeharrak bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea), erakundeak kontratuaren hasieran zehazten du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik (oro har, zerbitzu-prestazioetatik edo ondasunen salmentatik) eratorritako sarrerak kontratu-betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen- edo aurrerapen-mailaren arabera aintzatesten dira, betiere erakundeak informazio fidagarria badu aurrerapen-maila neurtzeko.

Se asume que el valor en libros de los créditos y débitos por operaciones comerciales se aproxima a su valor razonable.

4.4 Impuesto sobre beneficios

La Asociación está exenta del Impuesto de Sociedades por las rentas obtenidas en el ejercicio de las actividades que constituyen su objeto social o finalidad específica.

El Impuesto sobre Sociedades del ejercicio 2024 se ha liquidado según la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Bizkaia.

4.5 Ingresos y gastos

- Aspectos comunes

Las ayudas otorgadas por la entidad se reconocen en el momento en que se apruebe su concesión.

Las cuotas de usuarios o afiliados se reconocen como ingresos en el periodo al que corresponden.

Los ingresos procedentes de promociones para captación de recursos, de patrocinadores y de colaboraciones se reconocen cuando las campañas y actos se producen.

La entidad reconoce los ingresos por el desarrollo ordinario de su actividad cuando se produce la transferencia del control de los bienes o servicios comprometidos con los clientes. En ese momento, la entidad valorará el ingreso por el importe que refleja la contraprestación a la que espera tener derecho a cambio de dichos bienes o servicios.

- Reconocimiento

La entidad reconoce los ingresos derivados de un contrato cuando (o a medida que) se produce la transferencia al cliente del control sobre los bienes o servicios comprometidos (es decir, la o las obligaciones a cumplir).

El control de un bien o servicio (un activo) hace referencia a la capacidad para decidir plenamente sobre el uso de ese elemento patrimonial y obtener sustancialmente todos sus beneficios restantes. El control incluye la capacidad de impedir que otras entidades decidan sobre el uso del activo y obtengan sus beneficios.

Para cada obligación a cumplir (entrega de bienes o prestación de servicios) que se identifica, la entidad determina al comienzo del contrato si el compromiso asumido se cumplirá a lo largo del tiempo o en un momento determinado.

Los ingresos derivados de los compromisos (con carácter general, de prestaciones de servicios o venta de bienes) que se cumplen a lo largo del tiempo se reconocen en función del grado de avance o progreso hacia el cumplimiento completo de las obligaciones contractuales siempre que la entidad dispone de información fiable para realizar la medición del grado de avance.

Erakundeak aintzatetsi beharreko sarreraren estimazioak berrikusi eta, beharrezkoa bada, aldatu egiten ditu, hartutako konpromisoa betetzen duen heinean. Berrikuspen horien beharrak ez du nahitaez adierazten eragiketaren amaiera edo emaitza ezin denik fidagarritasunez balioetsi.

Data jakin batean, erakundea ez denean gai betebeharraren betetze-maila modu arrazoigarrian neurtzeko (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero duen arren, sarrerak eta dagokion kontraprestazioa, ordura arte izandako kostuen zenbateko baliokidean soilik aintzatesten dira.

Une jakin batean betetzen diren kontratu-betebeharren kasuan, kontratua gauzatzetik eratorritako sarrerak data horretan aintzatesten dira. Egoera hori gertatu arte, produktua ekoiztean edo fabrikatzean (ondasunak edo zerbitzuak) sortutako kostuak izakien gisa kontabilizatuko dira.

Aldez aurretik salmentagatik edo zerbitzuak emateagatik sarrera gisa aintzatetsitako kreditu-eskubidea kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, narriaduragatik galera, narriaduragatik balio-zuzenketagatik gastu gisa erregistratuko da, eta ez sarrera txikiago gisa.

- Betebarra denboran zehar betetzea

Erakundeak aktibo baten kontrola (oro har, zerbitzu edo produktu batena), denboran zehar transferitzen du irizpide hauetako bat betetzen denean:

- Erakundeak bere jarduera garatzen duen heinean bezeroak aldi berean jasotzen eta kontsumitzen ditu erakundearen jarduerak emandako onurak (normalean, zerbitzu bat ematea), behin eta berriz errepikatzen diren). Kasu horretan, beste erakunde batek kontratua bere gain hartuko balu, ez luke orain arte egindako lana berriro nabarmen egin beharko.
- Erakundeak aktibo espezifiko bat egiten du bezeroarentzat (oro har, zerbitzu edo instalazio tekniko konplexu bat edo zehaztapen bereziak dituen ondasun partikular bat), bestelako erabilerarik gabe, eta erakundeak eskubidea du orain arte burututako jardueragatik kobratzeko (adibidez, bezeroarentzako iritzi profesionala sorrarazten duten aholkularitza-zerbitzuak).

Aktiboaren gaineko kontrolaren transferentzia denboran zehar gertatzen ez bada, erakundeak sarrera aintzatesten du, une jakin batean betetzen diren betebeharretarako ezarritako irizpideei jarraituz.

- Betebarra denboraren une batean betetzeari buruzko adierazleak

Bezeroak aktiboaren kontrola (oro har, ondasun bat) lortzen duen une zehatza identifikatzeko, erakundeak honako adierazle hauek hartzen ditu kontuan, besteak beste:

La entidad revisa y, si es necesario, modifica las estimaciones del ingreso a reconocer, a medida que cumple con el compromiso asumido. La necesidad de tales revisiones no indica, necesariamente, que el desenlace o resultado de la operación no pueda ser estimado con fiabilidad.

Cuando, a una fecha determinada, la entidad no es capaz de medir razonablemente el grado de cumplimiento de la obligación (por ejemplo, en las primeras etapas de un contrato), aunque espera recuperar los costes incurridos para satisfacer dicho compromiso, solo se reconocen ingresos y la correspondiente contraprestación en un importe equivalente a los costes incurridos hasta esa fecha.

En el caso de las obligaciones contractuales que se cumplen en un momento determinado, los ingresos derivados de su ejecución se reconocen en tal fecha. Hasta que no se produzca esta circunstancia, los costes incurridos en la producción o fabricación del producto (bienes o servicios) se contabilizan como existencias.

Cuando existan dudas relativas al cobro del derecho de crédito previamente reconocido como ingresos por venta o prestación de servicios, la pérdida por deterioro se registrará como un gasto por corrección de valor por deterioro y no como un menor ingreso.

- Cumplimiento de las obligaciones a lo largo del tiempo

Se entiende que la entidad transfiere el control de un activo (con carácter general, de un servicio o producto) a lo largo del tiempo cuando se cumple uno de los siguientes criterios:

- El cliente recibe y consume de forma simultánea los beneficios proporcionados por la actividad de la entidad (generalmente, la prestación de un servicio) a medida que la entidad la desarrolla. En tal caso, si otra entidad asumiera el contrato no necesitaría realizar nuevamente de forma sustancial el trabajo completado hasta la fecha.
- La entidad elabora un activo específico para el cliente (con carácter general, un servicio o una instalación técnica compleja o un bien particular con especificaciones singulares) sin un uso alternativo y la entidad tiene un derecho exigible al cobro por la actividad que se haya completado hasta la fecha (por ejemplo, servicios de consultoría que den lugar a una opinión profesional para el cliente).

Si la transferencia del control sobre el activo no se produce a lo largo del tiempo la entidad reconoce el ingreso siguiendo los criterios establecidos para las obligaciones que se cumplen en un momento determinado.

- Indicadores de cumplimiento de la obligación en un momento del tiempo

Para identificar el momento concreto en que el cliente obtiene el control del activo (con carácter general, un bien), la entidad considera, entre otros, los siguientes indicadores:

- a) Bezeroak aktiboa jaso (onartu) du kontratu-zehaztapenen arabera. Erakunde batek modu objektiboan erabaki badezake ondasunaren edo zerbitzuaren kontrola bezeroari transferitu zaiola adostutako zehaztapenen arabera, azken hori onartzea formalitate bat da, eta horrek ez luke eraginik izango kontrolaren transferentziari buruzko zehaztapenean. Adibidez, onarpen-klausula zehaztutako tamaina edo pisuko ezaugarriak betetzean oinarritzen bada, erakundeak erabaki dezake irizpide horiek bete diren bezeroaren onarpenaren baieztapena jaso aurretik.

Hala ere, erakundeak ezin badu modu objektiboan zehaztu bezeroari emandako ondasun edo zerbitzuak kontratuan adostutako zehaztapenak betetzen dituela, ezin izango du ondorioztatu bezeroak kontrola lortu duenik bezeroaren onarpena jaso arte.

Bezero bati produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) proba- edo ebaluazio-erregimenean dagoen ematen zaizkionean, eta bezeroak ez duenean kontraprestazioa ordaintzeko konpromisorik hartu probaldia amaitu arte, produktuaren kontrola ez zaio transferitu bezeroari, bezeroak onartu arte edo desadostasuna jakinarazi gabe epe hori amaitu arte.

- b) Erakundeak kobrantza-eskubidea du aktiboa transferitzeagatik.
- c) Bezeroak aktiboaren jabetza du. Hala ere, erakundeak jabetza-eskubidea bezeroaren ez-betetzearen aurkako babes gisa soilik gordetzen duenean, inguruabar horrek ez lioke galaraziko bezeroari aktiboaren kontrola lortzea.

- Balioespena

Ondasunak saltzeagatik eta zerbitzuak ematetik datozen sarrera arruntak diru-zenbatekoan balioesten dira, edo, hala badagokio, eragiketa honetatik eratorriko kontrapartidaren arrazoizko balioan, jaso edo jasotzea espero dena; kontrako ebidentziarik ezean honela kalkulatu da: bezeroari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa ken deskontuen zenbatekoa, prezioaren beherapena, edo antzeko beste partida batzuk, baita kredituen nominalari gehitutako interesak ere. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-kredituei erantsitako interesak barneratu ahal izango dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Sarreraren barruan ez dira sartzen erakundeak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien ondasunak emateko eta zerbitzuak emateko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ezta hirugarrenen kontura jasotako kopuruak ere.

- a) El cliente ha recibido (aceptado) el activo a conformidad de acuerdo con las especificaciones contractuales. Si una empresa puede determinar de forma objetiva que se ha transferido el control del bien o servicio al cliente de acuerdo con las especificaciones acordadas, la aceptación de este último es una formalidad que no afectaría a la determinación sobre la transferencia del control. Por ejemplo, si la cláusula de aceptación se basa en el cumplimiento de características de tamaño o peso especificadas, la entidad podría determinar si esos criterios se han cumplido antes de recibir confirmación de la aceptación del cliente.

Sin embargo, si la entidad no puede determinar de forma objetiva que el bien o servicio proporcionado al cliente reúne las especificaciones acordadas en el contrato no podrá concluir que el cliente ha obtenido el control hasta que reciba la aceptación del cliente.

Cuando se entregan productos (bienes o servicios) a un cliente en régimen de prueba o evaluación y este no se ha comprometido a pagar la contraprestación hasta que venza el periodo de prueba, el control del producto no se ha transferido al cliente hasta que este lo acepta o venza el citado plazo sin haber comunicado su disconformidad.

- b) La entidad tiene un derecho de cobro por transferir el activo.
- c) El cliente tiene la propiedad del activo. Sin embargo, cuando la entidad conserva el derecho de propiedad solo como protección contra el incumplimiento del cliente, esta circunstancia no impediría al cliente obtener el control del activo.

- Valoración

Los ingresos ordinarios procedentes de la venta de bienes y de la prestación de servicios se valoran por el importe monetario o, en su caso, por el valor razonable de la contrapartida, recibida o que se espere recibir, derivada de la misma, que, salvo evidencia en contrario, es el precio acordado para los activos a transferir al cliente, deducido: el importe de cualquier descuento, rebaja en el precio u otras partidas similares que la entidad pueda conceder, así como los intereses incorporados al nominal de los créditos. No obstante, podrán incluirse los intereses incorporados a los créditos comerciales con vencimiento no superior a un año que no tengan un tipo de interés contractual, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

No forman parte de los ingresos los impuestos que gravan las operaciones de entrega de bienes y prestación de servicios que la entidad debe repercutir a terceros como el impuesto sobre el valor añadido y los impuestos especiales, así como las cantidades recibidas por cuenta de terceros.

Erakundeak, sarreraren balioespenean, kontraprestazio aldakorraren estimaziorik onena hartzen du kontuan, baldin eta aintzatetsitako sarreraren zenbatekoaren itzultze nabarmena ematen ez bada, kontraprestazio horren ziurgabetasuna ebazten denean.

Arau orokorraren salbuespen gisa, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, salmentetan edo aktibo horien erabileran parte hartze izaera duena, honako gertakari hauen ondorengo gertatzen denean (edo gertatzen den heinean) soilik aintzatesten dira:

- a) Salmenta ematea edo ondorengo erabilera izatea; edo
- b) Erakundeak kontratuaren arabera bere gain hartzen duen obligazioa, kontraprestazio aldakorraren zati bat edo guztia esleitu zaiona, ordaindu egiten da (edo partzialki ordaintzen da).

4.6 Hornidurak eta kontingentziak

Iraganeko gertaerek kalteak eragin badituzte erakundearen ondarean eta kalte horien zenbatekoa eta ezezte-momentua ez badaude zehaztuta, gertaera horien ondorioz sortu diren eta balantzearen egunean dauden betebeharrak hornidura gisa erregistratzen dira balantzean, erakundeak betebeharra ezezteko ordaindu behar duela balioztatzen den zenbatekoaren uneko balioarekin.

